

BERRI OROKORRAK

2024ko abenduaren 5ean 13. zenbakia

Jangela-zerbitzua

Abenduan jangelako bazkaldarrek izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Abenduko menua](#)

[Abenduko alergia eta intolerantzien menua bereziak](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alergia eta intolerantzia menuak](#)



Jangela abenduaren 19an

Abenduaren 19ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da.

Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi diegu, abenduaren 19an **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Arberoa ikastolari laguntza

Duela lau aste, Nafarroa Beherako Arberoa ikastolak su hartu zuen eta sostengu kanpaina bat abiatu du haien proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Internet bidez denda txiki bat ireki dute.

[Hemen produktuak](#) Animatu eta lagundu!



Baserritar jantzien trukea

Baserritar jantzien berrerabilera bultzatzeko, txiki geratutako arropak besteen eskura jartzeko aukera izango duzu.

Horretarako, Hitz Aho guraso elkarteak kaxa bat jarriko du Agerialde eraikineko HH-ko sarreran, arropa eta osagarriak jasotzeko. Jantziak uzteko epea abenduaren 2tik 10era izango da.

Abenduaren 12an 16.30ean behar duzuen hartzeko aukera izango duzue.

Oharra: ez da beharrezkoa ezer uztea zerbait hartu ahal izateko.



HAUR HEZKUNTZA

0-1 urteko haurren guraso-bilerak

Abenduaren 11n arratsaldeko **17:00etan** Haur Eskolan, **0-1** urteko haurren gurasoekin bilera egingo da.

*Ez da zaintza zerbitzurik emango.

*Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



Zorriak

HH5 urteko geletako ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Hatz 10 kobrantza

Hilabete honetako erreziboarekin batera, Hatz 10 mekanografia ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie LH4., 5. eta 6. mailako ikasleei. Kostua **5 €** izango da.



Zorriak

LH3. mailako ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ipuin musikatua

Abenduaren 11n, asteazkena, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, 6 - 8 urte bitarteko haurrentzat (LH1-2-3), IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA izango da, Perli eta Koxkoloren eskutik



DBH

Material-kobrantza

Abenduaren 16an, hileko erreziiboarekin batera, DBHko ikasleei 2024/25 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **38,50 €** izango da.



Irteera-kobrantza

❖ DBH4 - Durango:

Datorren astelehenean, **abenduak 9**, Durangoko azokako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **13 eurokoa** izango da eta autobusaren prezioari dagokio.

❖ DBH1 - Eureka:

Datorren astelehenean, abenduaren 9an, Eureka Zientzia museora egindako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **7,5 €** izango da eta museora sarrerari dagokio.



Ebaluazio-txostenak

GAUR igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora. Ondoren, tutoreak kontaktuan jarriko dira guraso-bilerak zehazteko.